



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

90. zenbakia

2020ko abenduak 3 – 16

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

2020ko hamarkadako hedabideetako euskarazko komunikazioa jorratzen da Bat Soziolinguistika Aldizkariaren 115. zenbakian

BAT aldizkariko urteko hirugarren zenbakiak euskarak hedabideetan duen presentziaren azterketa hartu du gai monografikotzat. Zenbakiaren oinarria EHUko 2020ko Uda Ikastaroen barnean Euskal Herriko Unibertsitateko Behategiak antolatutako Euskarazko komunikazioa 2020KO...

Euskararen Adierazle Sistemaren webgunea berritu da herritarrek bertako datuak modurik errazenean eskuratzeko helburuarekin

(Eusko Jaurlaritza) Euskararen errealitatea ahalik eta zehatzen ezagutzeko helburuarekin gaur egun 44 adierazleren datuak daude jasota aplikazioan. Aurkezpen tutoriala ikusgai.

Ikerketak

.EUS domeinuaren erabilera %18 hazi da aurten eta 12.000 domeinu-izenetara hurbildu da

(Naiz) Euskarazko .EUS domeinuaren erabilera %18 igo da; aurreikuspenak gainditu eta iaiz baino 8 puntu gehiago hazi da, PuntuEUS Fundazioak jakinarazi duenez. Uneko

proiekzioaren arabera, 12.000 domeinu-izenetatik gertu amaituko luke urtea .EUS domeinuak. «Covid-19a...

Hizkuntza eskubideak etengabe urratzen direla erakusten du Behatokiaren txostenak

(Naiz) Egunean, batez beste, bi urraketaren berri izan du Behatokiak 2019an zehar. Jasotako kexa kopuru handia ezagututa, erakundeko ordezkariak adierazi dute hizkuntza eskubideen urraketak eguneroko auzia direla, eta hori agerian ipini dutela herritarrek. Eta b...

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Euskal Herriko, Kabiliako eta Rifeko esperientzia soziolinguistikoak

(Sustatu) Garabide elkarteak topaketa digitala antolatu du gaurko eta biharko, abenduaren 16 eta 17an, Euskal Herriko, Kabiliako eta Rifeko hizkuntza biziberritze esperientziak ezagutzeko.

LuHi 5, lurgune euskaldun eta arnaguneen garapen iraunkorrean sakontzen

(Gipuzkoako Foru Aldundia) Urtarrilaren 23an izango da eta, doakoa izan arren, UEUn eman behar da izena. Jardunaldian, besteak beste, nazioarteko esperientziak, garapen sozioekonomikorako ereduak edota udaletako arduradunen testigantzak izango dira.

Elkar ezagutu, elkar onartzeko

(Euskaltzaindia) Euskara, dibertsitate eta migrazio alorretako adituen ekarpenak eta euskara etorkinengana hurbiltzeko xedez hainbat euskal udalerritan garatzen ari diren tokiko ekimenak azaldudira gaur Sabino Arana Fundazioaren egoitzan, hitzaldi eta mahai-inguruen ...

Anitz bezain interesgarri

(Mintzola) Zaintzaren ekonomia eta kultur sorkuntza, bertsolaritzaren erresistentzia funtzioa, bertso-eskoletan kantaera lantzeko proposamena... askotariko gaiak ekarri ditu aurtengo Mintzola Mintegiak. Ospakizun txiki-handia izaten da urtero Mintzola Mintegia. Bere ...

Gasteiz euskalduna?

(Argia) Azaroaren 26an, Euskaraldiaren barruan, Kike Amonarrizek Gasteiz eta euskarari buruzko datu eta bitxikeriak partekatu zituen Vital Fundazioa Kulturunean. Gasteizen

euskara egiten al da? Zenbat euskara entzuten da gure hirian? Zein da teknologia berrien eragin...

Liburuak eta artikulu zientifikoak

[Liburua] "Hizkuntza Indigenak. Ama lurra zaintzen"

(Irutxuloko Hitza) Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren, Garabide elkartearen eta Easo Politeknikoaren arteko elkarlana. Liburuak komunitate ezberdinetan kulturak dituen esanahi ezberdinei erreparatu die, testuen eta marrazkie...

Vaig aprendre a parlar en castellà, el català és la meua llengua, però uso... – Natxo Sorolla i Avel·lí Flors-Mas

(Revista Llengua i Dret) Quan ens interessem en el futur del català sovint situem el focus en «la joventut». Indirectament assumim que «als grans» ja els coneixem, o ja sabem què fan, o sobretot, que ja no canviaran massa al llarg de la seua vida. I doncs, ens ...

Mothering through Language: Gender, Class, and Education in Language Revitalization among Kaqchikel Maya Women in Guatemala

(Journal of Linguistic Anthropology) This article questions how gender and class operate in bilingual education programs for revitalization while accounting for the political economic context. Located among Kaqchikel Maya-dominant speaking women in Guatemala, the r...

Whither the Irish Language Act? Language policies in Northern Ireland

(Current Issues in Language Planning) Abhimanyu Sharma. This paper examines language policies in Northern Ireland vis-à-vis the Irish language. Whilst the devolution of powers has benefitted Welsh and Scottish Gaelic through the creation of separate language acts de...

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Adostasun sozial eta politikoak eraikitzeko ordua heldu da

(Kontseilua) Donostiako Aquariumean egin da gaur goizean Kontseiluaren Urteko Irakurketa ekitaldia. Bertaratu diren hainbat erakunde, eragile eta bazkideren aurrean, 2020an

euskalgintzak eta hizkuntza-politikek eman dutena izan du aztergai Euskalgintzaren Kontseiluak...

Gazteek kontzientziak astindu nahi dituzte

(Argia) Mahai-inguruan lau gazte bildu ditugu: Miren Balmaseda Castellano tuterarra, Maialen Arteaga Gonzalez zornotzarra, Andrei Fuchs donibandarra eta Mikel Aiartzaguenaga Agirrebeitia bilbotarra. Hasteko, Aiartzaguenak Gaztealdia testuinguruan jarri eta euskararen a...

UEMAko kide da gaurtik aurrera Lesaka

(UEMA) Urte amaierako Batzar Nagusia egin du gaur UEMAk Lesakan. Bertako Harriondoa Kultur Etxean bildu dira UEMako zuzendaritza batzordeko kideak eta UEMako kide diren Nafarroako 14 udaletako ordezkariak. Gainerako batzarkide guztiek, berriz, online hartu dute parte...

ESRC-NINE PhD Scholarships

(Xarxa CRUSCAT) Ulster University, as a partner in the ESCR Doctoral Training Partnership of Northern Ireland and the North-East (ESRC-NINE), is pleased to offer up to four postgraduate studentships in the following areas of enquiry across the social sciences.



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

emun[®]
Euskara eta
berrikuntza soziala